

EUSKERA

1. HITZ ELKARTUAK. Bi hitz elkartuz sortzen direnei esaten zaie hitz elkartu.

Adibidez: txakur + kume = txakurkume

Ematen zaizkizun hitz hauek, banatu marra baten bidez, hitz elkartua apurtuz.

BURUGOGOR JOLASTOKI TRENBIDE ILEGORRI GOZODENDA

IKASGELA LOGELA

2. Orain, idatzi goiko hitzak dagokion definizioarekin.

- Amore ematen ez duena, egoskorra: _____
- Trenak ibiltzen diren bidea, bi errail paraleloz osatuta: _____
- Gozokiak saltzen diren denda: _____
- Jolasean ibiltzeko , jolas egiteko zernahi toki: _____
- Ikasten den gela, bereziki ikastetxe batean eskolak emateko prestatutako tokia: _____
- Lo egiteko prestatuta dagoen gela: _____
- Ilea gorrixka duena: _____

3. Idatzi hiru hitz elkartu:

4. HITZ ERATORRIAK. Hitzari atzizki bat jarritz, hitz berri bat sortzen da. Halakoei hitz eratorriak deitzen zaie. Esaterako: iluntasun(ilun+tasun), adiskidetasun(adiskide+tasun)....

-tasun atzizkiaz gain , badira atzizki gehiago ere: -kide, -tegi, -larri,-gura...

Elkartu hitz bakoitza dagokion atzizkiarekin eta hitz eratorri bat sortuko duzu.

lo
lan
gela
pixa
aurkitu
txerri
ikusi
gazte
euskera
zaindu

-dun
-le
-gura
-kide
-eria
-larri
-tegi
-kuntza
-tzaile
-ki

5. SINONIMOAK. Esanahi berdina duten baina hitz desberdinak diren hitzak dira.

Adibidez, poztasuna eta alaitasuna sinonimoak dira, berdina esan nahi dutelako.

Bilatu hurrengo hitzen sinonimoak.

- Pozik:
- Goibel:
- Guraizeak:
- itsaski:
- orlegi
- asmatu:
- isipu:

Alai - artaziak- triste - kola-berde- sortu- pintzela

6. **ANTONIMOAK.** Esanahi desberdina duten hitz dira. Hala nola: pozik eta triste hitzak antonimoak dira.

Idatzi hurrengo hitzen antonimoak:

- luzea→
- altua→
- itxi→
- igo→
- kendu→
- berotu→
- kendu→

7. **EREMU SEMANTIKOA.** Zer da eremu semantikoa? Gogoratzen al duzu?
Aukeratu erantzun egokia.

- a) Hitz batzuk dira oso politak direnak
- b) Gai batekin zerikusia duten hitzek osatzen duten multzoa
- c) Hitz ezberdinak dira gai ezberdinetatik aukeratuta

Esan zein den hurrengo hitz multzoen eremu semantikoa.

Adibidez:

- a) arkatza- atxingia-erregela- mahaia-aulkia-arbela digitala- ordenagailua- mini ordenagailu eramangarriak : IKASGELA izango zen eremu semantikoa
- b) zuhaitza- mendia- loreak-animaliak-lokatza-harriak: _____
- c) gorria-zuria-horia-berdea-urdiña- beltza-morea-larrosa: _____
- d) Asmatu zuk pare bat eremu semantikoa
- e)
- f)